




AZOKA

	 10 min
MATERIALA - Gelako gauza txikiak	

AZALPENA

Norberak ikasgelako gauza bat hartzen du. Denak ezberdinak izan behar.

Jarraian, nor bere sudurrari segika hasten da gelan zehar.



“AZOKA” aditzean, binaka elkartu eta argudioka hasiko gara, elkarri norberaren gauza saldu nahian.

Jolasaren gakoa ez adostasunean, hots, trukatzean datza.

Berririo “SUDURRA” eta oraingoan beste bikote batekin negoziatu ...



AZOKA ARRISKUTSUA



	 10 min
MATERIALA	
<ul style="list-style-type: none">- Marrazkiak bi kutxetan- Musika	

AZALPENA

Borobil berean bi kutxak hasten dira bueltaka, eserita gaudela: bata dugu sagua eta bestea katua. Elkarri jarraika hasiko dira musikaren erritmoan. Doinua gelditzean, kaxa dutenek txartel bat atera eta norgehiagoka hasiko dira publikoaren aurrean.



AZOKA BIKOIZTUA

	 10 min
MATERIALA	
<ul style="list-style-type: none">- Txartel errepikatuak- Begiak estaltzeko zapia	

AZALPENA

Txartel errepikatuak erabiliko ditugu oraingoan; begiak itxirik banatzen dizkiegu. Zabaltzean, nor bere bikotea aurkitu eta bien artean beste bikote baten aurka saiatuko dira negoziatzen.



AZOKA EURITSUA

	 10 min
MATERIALA - Marrazki txartelak	

AZALPENA

Txartel guztiak kutxa batean sartu eta airera botatzen ditugu anabasa handiz.

Txartel bana hartu eta esango dugun talde motaren arabera negoziatu:

- Binaka
- Bosnaka
- Hirunaka
- Bakarka



Bat- bateko AZOKA

	 10 min
MATERIALA - Gelako gauza txikiak	

AZALPENA



Hiruzpalau tratu egin ondoren, norberaren mintzaera zabaldu eta aberastu egin da jasotzaile askorekin aritzeagatik soilik. Orain sudurrari segitu ordez, isilean ibiliz, gauzak trukatu ditugu bati eta besteari etengabe.

“AZOKA” !! Esku artean daukagunarekin tratu egin norbaitekin, ados jarri gabe.

“TRUKAKETA” berriro isilik ibili etengabeki “trukatuz”. Bat-batekotasuna lantzen dugu orain.



BI GURPILETAN

	 10 min
MATERIALA	
<ul style="list-style-type: none">- Txartel errepikatuak- Musika	

AZALPENA

Orain bikoteak bereizi. Bat barne zirkulura eta bestea kanpokora.

Musika hastean, bi gurpilak jiraka hasten dira aurkako norabidean.

Musika amaitzean, txartel berdinek topo egin behar dute, beste bikote aliatu bat hautatu eta beste laukote baten aurrean berea defendatu.



ITSAS ZABALEKO BIZIRAUPENA

	 10 min
MATERIALA - Marrazki txartelak	

AZALPENA

Txartel sekretuak ditugu. Hirunaka elkartuta itsas zabalean txalupa berean zaudete. Ekaitz itzela datorkigu, zerbait egin behar. Zer edo zer bota behar da uretara, baina txartelarekin batera jabea ere itoko da. Nor dago soberan?

Defenda ezazue zeuen burua, hil hala bizi!